


noaua

Elkarrek ez du bere egoitza berria Usurbilen ezarriko

Hizkuntza eskubideen ahaldunderako saioa, otsailaren 3an Potxoenean

Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" proba 2022ra atzeratu dute



Usurbilen Nahi Ditugu-ren agurra

“Gatazka politikoaren ondorioei behin betiko konponbidea emateko lanean segituko dugu”

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea
urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu)

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

Usurbilen,
zure auto-tailerra

Etxeta Ramon



Atallu

AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak

DOHAIZNIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

bertsoan
ritsuketan

Lanku
www.lanku.eus

erradi
kalek
ginen

Otsailak 13, larunbata

ERRADIKALAK GINEN

Antzerki, bertsoa
eta bakarrizketa

Ordua: 18:00.

Non: Sutegiko auditorioan
Nori zuzendua: Gazte eta helduei

sarrerak: aldez aurretik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaUA



Albisteak iruditan

Danborradari keinu xumea

Ez da izan beste urteetako ospakizun girorik. Ez zen arropa zuririk, ez ikuslerik ezta ikasleez betetako patiorik ere. Baina urtarrilaren 19an, urtero moduan, danbor hotsak entzun ahal izan ziren Donostia Egunaren bezperan, Udarregi Ikastolan, Agerialdeko patioan hain zuzen.

Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko ikasleek danborra joz amaitu zuten eguna. Saio txikia izan zen, egun bizi dugun Covid-19ak eragindako osasun krisialdira egokiturikoa. Bakarrik ospatu zuten, guraso ikus-entzulerik gabe. Hiru taldeetan, eguneroko "burbuiletan" banatu zituzten; maila bakoitzeko ikasle multzo bat. Eguneroko arroparekin aurten, beste urteetan HH nahiz LH-koek egin izan duten danborrada erraldoi hari keinu txikia eginez. Ikasleek gogotsu jo zituzten makilak danborren gainean, 2022an "lehengo" ospakizun moldeetara itzultzeko esperantzarekin.



Urtarrilaren 19an danbor hotsak entzun ahal izan ziren Donostia Egunaren bezperan, Udarregi Ikastolan. Argazkian ikus daitekeen moduan, Agerialdeko patioan aritu ziren.

Laburrean

Eremu horira itzuli da Usurbil

Eusko Jaurlaritzak Covid-19aren hedapenari aurre egiteko herri mailako konfinamendua eta gehienez lau bilkura ezarri zituen astelehenean, eremu horira itzuli zen Usurbil, intzidentzia 269,50eraino murriztu ostean.

"Biohondakinen kudeaketa", Hobekiren jardunaldia

"Biohondakinen kudeaketa: nola gaude eta zer egin dezakegu?" jardunaldia antolatu du Usurbilgo Udala kide duen Hobeki Elkarteak otsailaren 17rako Oñatin. Streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. Izen-ematea hobekielkartea.eus atarian.

Sortzaileentzako Udalbiltzaren beka deialdia

Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" beka deialdirako eskabideak aurkezteko epea otsailaren 5ean amaituko da. Eleberrri laburrak edo ipuinak, antzerki obrak edo film laburrak diruz lagunduko dira. Informazio gehiago, udalbiltza.eus atarian.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noau.eus ||| www.noau.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noau.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noau.eus



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti Bengoetxea

Isiltasuna modu askotan neurtu daiteke. Lasaigarria izan daiteke. Ezinbestekoa kontzentratu ahal izateko, agian. Gela oso bat eta norbera betetzeko adinako gaitasuna duena. Zientziara joz gero bestalde, dezibelioen eskala bidez ordenatzen dira soinuaren intentsitate mailak. Isiltasuna, 0 dezibeliotan (dB) kokatzen da. Hustasunean. Soinuaren gabezia. Eta hemendik gora, mailaz maila, dB kantitate bati lotzen zaizkien soinuaren tarte batzuk definitzen dira. Inguratzen gaituzten eta kanporatzen ditugun uhin ikusezinak moduren batean katalogatzeko, nolobait. Dena den, eskerrak zientziaren munduan praktikotasunari mesede eginez, halako eskalak bizitza errealeko gertakizun edota erreferentziekin alderatu ohi diren.

Izan ere, 0-10dB tartea, arnasketa lasaia edo urrats bat ematearekin parekatu liteke. 20dB-ko hotsa sortu dezake haizeak zuhaitzak leun astintze dituenean. 30dB-tan mantentzen omen dira elkarrizketak ahots baxuan. Eta hemendik aurrera, zarata-mailak txikitik ertainera egiten du jauzi.

Antza, 40dB-tatik aurrera gauzatzen dira elkarrizketa arruntak. Hasten da sortzen liburutegi edota ustezko jar-



"Isiltasunak balioa galtzen du norberak hautatzen edo bilatzen ez duenean".

ALAZNE ARRUTI

**"Aulkietan
urtu beharrean,
dantza betean
eta elkar ukitzen egon
nahi genuke, besoa
bizkarretik pasa
eta besarkatuta kantari"**

duera gutxiko gela bateko giroa. Hala esnatzen omen da egun lasai bat mendian, olatuen hotsa itsasoan edo irudika genezaken edozein eremu lasai. Ziurrenik, hemendik gora kokatu beharko nuke txikitik herriko elkarteko otordu osteetan sortzen zen iskanbila. Nahiz eta, nintzen haur hark, zarata maila minimo hura behar zuen mahai likatsuan burua bermatu eta lokartzeko. Beraz, esango nuke norberak

bere mailakatze eta eskala propioa duela memoriaren mapan.

Zarata-maila arrunta 50dB-koa omen da, jendeaz arinki betetako gela, bulego edota kale ez horren jendetsuetan. Garai bateko etxetresna ez horren isilen jarduna ere, hemen koka genezake. Eta akaso zuek ere pentsatu duzue, etxetik lanean daramagun hilabete hauetan inguratu gaituen giroak, bigarren adibideetik gehiago duela lehenengotik baino. Izan ere, kosta egiten zaigu, elkarrekin kaleak gainezka bete, bizi eta gozatzen genituela noizbait, ustezko 55-65dB-tan, baina inongo mugarik gabe.

Eztabaidak bestalde, isildu partez, digitalizatu egin direla dirudi. Lehen 75dB-tan zuten oihartzuna esponenzialki hasiaz gainera. Eta pandemiak

berak ere, sare eta hedabideak bereganatu dituen arren, bilatuz gero behintzat, betikoen mesedetan erabilitako tresnok zalantzan jartzeko aukera ere izan da.

Eta hemendik aurrera, 80dB-tik gorako hots jarrai eta iraunkorrek kaltegarriak izan omen daitezke. Tren baten ibilaldia, fabriketako makineria, suhiltzaileen sirenak edota manifestazio zaratatsuak esaterako. Dena den, jakina da batzuek, hauetako zenbaiten aurrean entzungor egiteko superbotere berezi eta ahalguztiduna dutela.

Ez dakit neroni naizen soilik, baina zarataren falta sumatzen dut. Kutsadura akustikoa zer zen ere ahazten hasia nago. Eta nahiz eta jende askori esker, oraindik kontzerturen batean ez dugu elkar identifikatzen saia gaitzkeen, zerbait falta da. Badirudi musika, zarata, ez dela bera. Aulkietan urtu beharrean, dantza betean eta elkar ukitzen egon nahi genuke, besoa bizkarretik pasa eta besarkatuta kantari.

Isiltasunak balioa galtzen du norberak hautatzen edo bilatzen ez duenean. Zarataren antzera, epe jarrai eta iraunkor batean luzatuz gero, kaltegarria izan daitekeelarik.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriketa
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

“Euskararen ekosistemak”, Euskararen Ginkanako hizpideak

Euskararekin jolas egiteko ginkana ezagunaren 7. edizioa antolatatu dute Kutxa Ekoguneak eta NOAUA! Kultur Elkartea kide duen Euskaltzaleen Topaguneak; aurten, “Euskararen ekosistemak” gaiaren bueltan. Parte hartzaileek (16 urtetik gorako 4-6 kideko taldeek) izen emateko aukera dute otsailaren 3ra arte.



Parte hartzaileek (16 urtetik gorako 4-6 kideko taldeek) izena emateko aukera dute otsailaren 3ra arte. Argazkia iazko ediziokoa da.

GINKANA

“Puntu gehien biltzen dituzten lau taldeak martxoaren 20ko finalera sailkatuko dira”

Euskalduntzeari gorazarre, Korrikak amaitu behar zuen egunean

55 urte bete dira AEK-n bilakatu zen helduen alfabetatze eta euskalduntzea abiatzea eskatu zitzaionetik Euskaltzaindiari. Urtemuga honen buel-

tan, oraindik bizirik segitzen duen premia haren garrantzia aldarrikatzeko unean uneko prebentzio neurrietara egokituriko ekimen xumeak iragarri ditu AEK-k Euskal Herriko hainbat tokitan, berez Korrikaren amaiera ospatuko zen martxoaren 28rako. Euskaltzaleei data hau agendan ondo gordetzea eskatu diete. Gogoan izan 22. Korrika 2022ra atzeratu dute pandemiagatik. Aurrerago plazaratuko dituzte xehetasunak.

Lehen fasean, Internet bidez asteazkenero erantzun beharreko lau proba izango dituzte lehiakideek, otsailaren 3tik martxoaren 3ra. Puntu gehien biltzen dituzten lau taldeak, Donostiako Ekogunean ospatuko den martxoaren 20ko finalerako sailkatuko dira.

3.000 euroko saria

Txapeldunek 3.000 euroko saria irabaziko dute. Informazio gehiago eta izen ematea, euskararenginkana.eus atarian.

Langabetu kopuruak gora egin zuen 2020. urte amaieran

Abuztutik udalerrri honek izandako joera hautsi da; pandemia hasi zenetik (martxoan 245 langabetu) etenik gabe gorantz egin eta uztailean goia jo ostean (299 langabetu) ordutik etengabe beherantz egin du azaroan 256 langabetu izateraino. Abenduan aipatu moduan, lanik gabeko 8 herritar

gehiago zenbatu dituzte Usurbilen. 2019ko abenduarekin alderatuta, nabarmentzekoa da gorakada; orduko hartan 221 langabetu zenbatu zituzten Usurbilen, 43 gehiago urtebete beranduago, 264 guztira.

Kontratazioak, gorantz

Langabetu kopurua zertxobait

igo den arren, kontratazioak nabarmen egin du gora; azaroan 172 kontratu erregistratu zituzten Usurbilen, 264 abenduan. Ia denak aldi baterako, 246.

Eta oraingoan kontratu kopuru oso parekatua: 134 lan kontratu gizezkoenak izan ziren, 130 emakumezkoenak.

Aldaketak

Kalezarko trafikoa

Haurreskolaren sarrera eta Pikaolara arteko tartea urbanizatzen hasi dira eta lanak amaitu arte errepidea itxita egongo da. “Era berean, Kalezartik Txaparren-Berri baserrira arteko bidea ere etenda egongo da bi astez”.

■ Haurreskolaren sarreratik Pikaolara arteko zatia itxita otsailaren 5era arte.

■ Kalezartik Txaparren-Berri baserrira jaisteko bidea itxita bi astez.

Kalezar eta Kaxkoa

Behin-behineko semafoerok bideratzen dute kaxkoa eta Kalezarren arteko trafikoa. “Asteotan ez da semafororik izango, aldapa horren noranzkoa bakarria izango baita: behetik gorakoa”. Usurbilera jaisteko, beriz, Kalezarko kaxkoa zeharkatu beharko dute ibilgailuek. “Pikaolaren ondoko aldapan dauden apartakalekuak erabiltzeko aukera izango da”, azaldu du udalak.

Ostalarientzako

diru-laguntzak

Eskabideak telematikoki (usurbil.eus) edota udal-etxeko 943 371 951 telefono zenbakira deitu eta hitzordua eskatuta aurrez aurre bideratu ahalko dira. Establezimendu bakoitzeko 700 euroko kopuru finkoa, gehi beste 300 euro jaso ahalko dituzte, hornikuntzarako gaiak herrian bertan erosiz gero.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Elkarrek ez du bere egoitza berria Usurbilen ezarriko

2018ko udazkenean izan zen. Gureak eta Elkar Fundazioaren egoitza berriak Usurbilen finkatuko zirela iragarri zen ofizialki. Michelinek abandonatuta duen orube batean, zehatzago esanda. Egitasmoaren aurkezpena udaletxeko pleno aretoan egin zen. Pandemiak ordea, orduko planak zapuztu ditu eta Elkarrek atzera egin behar izan du.

Aurreko astean, aldizkariaren edizioa ixtear ginel, Usurbilgo EAJren prentsa-ohar bat jaso genuen. Elkarrek atzera egin zuela eta erabaki horren atzean leudekeen arrazoiak ezagutu asmoz, eskaera bat bideratu zuela udal erregistroan. Aldizkarian sartzeko astirik gabe, oharra noaua.eus web orrialdean eman genuen argitara.

Usurbilgo EAJ: “Usurbildarrok merezi ditugun argitasunak eman ditzatela”

2018an, Xabier Arregi alkate zela eman zen egitasmoaren



2019ko otsailean agerraldi bateratua egin zuten Gureak-ek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Udalak eta Elkarrek.

ARRAZOIA

“Elkarrek ezin dio inbertsioari eutsi eta ezingo du proiektu honekin aurrera egin”

berri. Orduan esandakoak ekartzen zituen gogora EAJk: “Sekulako garrantzia duen jarduera ekonomiko bat bertara ekartzera goaz. 950 lanpostu ekarriko ditugu Usurbilera”.

Bi urteren buruan, egoera aldatu egin da. Alderdi jeltzalea kexu zen kanpotik iritsi zitzaie-

lako albistea, “eta ez udal gobernuaren bidez”. Eskaera bat ere bazekarren Usurbilgo EAJren prentsa-oharrak: “usurbildar guztiok merezi ditugun argitasunak eman ditzala” erregutzen zion udal gobernu taldeari.

Usurbilgo EHBildu: “Hirigintza Batzordean aipatu zen. EAJko inor ez zen etorri”

Biharamunean iritsi ziren EH Bilduren adierazpenak. Ez zela egia ezkutuan ari zirenik. “Oposizioari gai honen berri eman zitzaion, abenduako hiri-

gintza batzordean. EAJko inor ez zen etorri”. Eta kezka agertu zuen, “lana udalean egiten da, eta ez komunikabideetan”.

Covid-19ak gogor kolpatu du ekonomia eta kultur arloko enpresak ez daude salbu, EHBilduren agiriak dioenez. “Elkar Taldeak ezin izan dio inbertsio honi eutsi eta, ondorioz, ezin izan du proiektu honekin aurrera egin. Kolpe latza da. Edonola ere, hiru erakundeek (Elkar, Gureak, Udala) hartu-eman etengabe jarraitzen dute, bestelako aukerak aztertzen”. Usurbilgo EHBilduren esanetan, “Udalak enpresen tempusak errespetatu nahi izan ditu, eta horixe izan da albistearen berri publikoki eman ez izanaren arrazoa”.

EHBildu penatuta dago alderdi jeltzaleak hartu duen norabidearekin: “EAJk elkarrizketa, elkarlana eta herri adostasunak alboratu ditu, eta zarata politikoa lehenetsi. Aurrekontuen eztabaidan ikusi bezala. Lastima”.

“Usurbilgo Udalarentzat kolpe gogorra izan da”

Elkarrek, Gureak-ek eta Udalak idatzi bateratu bat plazaratu zuten urtarrilaren 21ean. Bere osotasunean jaso genuen noaua.eus orrialdean. Mamitsuena jaso dugu hemen:

“Osasun krisia ez ezik, krisi ekonomiko eta soziala ere ekarri ditu Covid-19ak, eta hori da Elkarrek Usurbilgo proiektuarekin aurrera ez jarraitzeko arrazoa. Orain, aterabide berri bat lantzen ari gara Zapategirako, hiru eragileok, elkarlanean.

Elkarrek ez du aurrera egin bere egoitza berria Usurbilen eraikitzeko proiektuarekin, Covid-19ak sortutako testuinguru latzak behartuta. Hori horrela izanik ere, etengabeko harremanetan jarraitzen dute

udalak, Elkar Taldeak eta Gureak-ek: Zapategi eremurako soluzio bat topatzea izan dute helburu hasieratik, eta horretan jarraitzen dute.

Covid-19aren ondorioz etorri den pandemiak Usurbilgo proiektua gelditzera behartu du Elkar.

Ez da Elkarren gustuko erabakia izan, taldeak ikusten baitzuen Usurbilen zuela bere beharretarako propio egokitutako egoitza eraikitzeko aukera. Baina une honetako egoerak enpresa behartzen du baliabideak neurritz erabiltzera, ziurtatu behar baitu hurrengo urteetan bere jarduerak aurrera jarraituko duela eta lanpostuei eusteko gaitasuna izango duela. Horren guztiaren gainetik, dena den, oso eskertuta

dago urteotan bidelagun izan dituen hala Gureak-ekin zein Michelin-ekin, nola Usurbilgo Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zein Eusko Jaur-laritzarekin.

Usurbilgo Udalarentzat kolpe gogorra izan da, mimo handiz landutako proiektua izan baita hasieratik: ahalegin handia egin zen eta horri esker lortu zen proiektua Usurbilera eraman ahal izatea. Ez da berri ona ez Usurbilgo Udalarentzat ez Usurbilgo herriarentzat ere, baina Elkarrek ezinbestean hartu beharreko erabakia izan da etorkizuna kolokan ez jartzeko, ziurtatzeko Elkarren enpresa proiektua, proiektu soziala eta proiektu kulturala.

Elkarrek bere erabakiaren berri eman ostean, elkarlanean

jarraitu dute hiru eragileek. Hartu-emana etengabekoa izan da, eta hala izaten jarraitzen du. Elkarrek bere bidea hartu duen arren, hizketan segitu dute. Izan ere, Gureak-ek bakarrik ezin dio aurre egin aurrez adostutako proiektuari, eta antolamendu berri bat lantzen ari dira, eraikigarritasuna eta karga urbanistikoak jaitzita, Gureak Usurbilen gelditzeko ahaleginean.

Orain, Elkar gabe bada ere, proiektu berriarekin buru-belari ari gara lanean, eta horretan jarraituko dugu aurreantzean ere. Oso eskertuta gaude gu ere urteotan Elkar Taldearekin zein Gureak-ekin izandako elkarlanagatik, eta zinez etorkizun emankorra opa diegu bi-biei”.

Ingurumen larrialdia salatzen deia, Larreko Mahaiaren “Aldaketaldia” ekimen zikloan

Larreko Mahaiko eragile anitzek “Zaldibar gogoratu, ondo bizi eta bizitzen uzteko Aldaketaldia” ekimen zikloarekin bat egitera deitzen gaituzte asteotan. Urtarrilaren 30ean bereziki baina baita egun horren aurretik, baita hilabeteko azken larunbat horren ostean ere. “Aldaketa behar dugu. Alda sistema! Bat egin urtarrilaren 30ean has daitekeen Aldaketaldiarekin”, deitu dute egunotan Donostian egin duten agerraldi bidez.



Larunbat honetarako manifestazioa deitu dute Donostian.

Hona egitea proposatzen digutena. “Urtarrilaren 30ean, edota aurreko zein ondorengo egunetan, larrialdi ekologikoari lotutako salaketa- eta aldarrikapen-ekintzak egitea proposatu dugu: hitzaldiak, elkarretaratzeak, bizikleta-martxak, kostaldean edo ibaietan plastiko-bilketak, zuhaitzak landatzea, proiektu erraldoiren batek mehatxatutako natur guneetan ibilaldiak... eta bururatzen zaizuen gutzia”, eskatu dute.

Gogoan izan, eragile sozial, sindikal eta ekologista zabal bat biltzen duela, ingurumen larrialdiari aurre egin eta herritarren lidergoarekin batera ingurumena eta bizitza erdi-

LARREKO MAHAIA “Bizitzaren aldeko norabide aldaketa sakona ezinbestekotzat jotzen du Larreko Mahaiak”

gunean jartzea sustatzen duen Larreko Mahaiak. 2019ko udazkenean sortu zen bilguneako kide dira eragileok: ELA, LAB, CCOO, ESK, STEILAS, EHNE, Ikasle Sindikatua, Greenpeace, Eguzki, Errausketaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Ernai, Fridays For Future eta Extinction Rebellion”. Eta haiekin taldeok ere bat egin dute “U30 Aldaketaldia” ekimenarekin: Haritzalde,

Satorralaia, Uliako Lore Baratzak, Aire Garbia, Ipar Haizea, Landarlan, Ekologistak Martxan, AHTrik EZ, Grupo Oarso Taldea, Urola Bizirik, Mutriku Natur Taldea, Antikapitalistak, BizilagunEKIN, Ondarroa 12 Mila, Naturkon, Arkamurka eta beste batzuk.

Ingurumen larrialdia salatzen deia

Eragile guztiok deitzen gaituzte “Aldaketaldia” ekimenean parte hartzea, helburu honen bueltan; “urtarrilaren 30aren bueltan, ahal den herri, auzo, ikastetxe eta lan-zentro guztietan klima-, bioaniztasun- eta, oro har, ingurumen-larrialdia salatzen ekintzak antolatzea,

betiere ikuspegi lokaletik”.

Bizitzaren aldeko norabide aldaketa sakona ezinbestekotzat jotzen du Larreko Mahaiak. “Agintari politikoek, orain pandemiaren aitzakian, eredu ekonomiko eta sozial jasanezinean sakondu eta larrialdi-egoera areagotzen jarraitzen duten honetan, beharrezkoa da norabide-aldaketa sakona exijitu eta trantsizio ekologiko eta sozialki justu baten alde urratsak emango dituen jendartea aktibatu eta saretzea”.

Lokala eta globala

Lokala eta globala uztartzeko ekimena izatea ere badute helburu. “Globalean pentsatu eta lokalean ekin” leloak adierazi bezala, ezinbestekoa iruditzen zaigu krisi globala hemen bistaratzea, planetari gertatzen ari zaiona gurean hasten dela argi adieraztea; gure garraio-, hondakin-, bioaniztasun-, lurralde antolaketa- edota ibaien saneamendu-politiketan. Beraz, lokala eta globala uztartzeko ekimena izatea nahi dugu, bide batez norberak bere taldearekin ez ezik beste batzuekin elkarlanean, ingurumen-larrialdi honi eraginkortasun handiagoz aurre egiteko abiapuntu”.

Larunbat honetan manifestazioa deitu dute Donostian

Herri eta eskualde anitz, eta denetarik ekintzen “kabia” izango da Larreko Mahaiak ingurumen-larrialdia salatzen asteotarako antolatutako “Aldaketaldia”. Gipuzkoako mugak gainditu eta Araba eta Bizkaiko hainbat txokoetara ere hedatuko da.

Hainbat ekintza antolatze-

ko proposamenak zerrendatu ditu jada Larreko Mahaiak. Antolatzaile guztiak bateratuko dituen manifestazio bat da lehenik nabarmendu beharrekoa, “Aldaketaldia” ekimen zikloaren egun seinalatuan; urtarrilaren 30ean. Arratsaldeko 17:00en hasita, “ahal den manifestazio batu,

animatu eta koloretsuena” iragarri dute Donostian. Gladys Enea, Bilbo plaza, Getaria kalea eta Bulebarra lotuko ditu.

Zaldibar gogoan

“Zaldibar gogoratu” aldarria ere biltzen du Larreko Mahaiaren Aldaketaldiak. Otsailaren

6an Zaldibarko zabortegian jazoetako hondamendiaren lehen urtea beteko da. “Aldaketaldia ekimenaren bidez hori gizarteratzen lagundu nahi genuke, Zaldibarkoan argi geratu baita Euskal Herrian, ingurumen alorrean, gauzak ez direla ondo egin eta ez direla ondo egiten ari”.

Erraustegia berehala gelditu, eta osasuna zein ingurumena babesteko giza katea

Erraustegia orain gelditzea, eraikuntza kutsagarrien kontrol demokratikoa, herri-galdeketa, laburbilduz, ingurumen demokrazia exijitu zuen GuraSOsek iragan larunbatean Donostian antolatatu zuen giza katea. Elkartearen logoaren SOS hizkien kolore gorria islatu zuten parte hartzaileek aurpegian zeramatzaten musukoek.

Larreko Mahaia ingurumen larrialdia salatzen antolatutako “Aldaketaldia” zikloaren baitan egin zen ekimen honek hiriburuko puntu sinbolikoak lotu zituen; Eusko Jaurlaritzaren lurralde ordezkartzaren egoitzan hasi, Foru Aldundiaren egoitza zeharkatu eta Egiako epaitegietan amaitu zen. “Osasuna, ingurumena, justizia” babestea exijitu zuten usurbildarren parte hartze nabarmena erakarri zuen hitzordua.

Informazio, gardentasun eta segurtasun bermeen gabezia salatu zuten, erraustegiaren bueltan. Ikertu ahal izan dutenagatik, azken hiru urteotan



Eusko Jaurlaritzaren lurralde ordezkartzaren egoitzan hasi, Aldundiaren egoitza zeharkatu eta Egiako epaitegietan amaitu zen giza katea.

GURASOS

“Bizitza suntsitzen duen eredu honen aurrean mobilizatu behar gara”, adierazi zuten giza katearen amaierako ekitaldian

soilik “3 isurketa, 3 sute eta 3 istripu-industrial” jazo dira Zubietako gaineko azpiegituran. Urtero isurketa bat Arkaitzerrerekan; 2018ko martxoaren 22an, 2019ko uztailaren 28an eta iazko maiatzaren 9an. Hiru

sute; bi transformagailu nagusian 2019ko ekainaren 11n izandako leherketaren eraginez, “baimenik gabe eraiki eta martxan jarri zuten”. Bigarrena iazko irailaren 1ean. Beste hiru sute iazko azaroan, abenduan eta urtarrila honetan. “Gertatutakoak jatorri argia du” GuraSOsen esanetan, “enpresa kontzesionarioak errentagarritasun ekonomikoa lehenestea. Pribatua, publikoaren kaltetan, hau da, segurtasuna, osasuna eta ingurumenaren kaltetan” eta hau guztia “arduragabeke-

ria da, segurtasunarekiko eta ingurumenarekiko mespretxua da”. Testuinguru honetan, “bizitza suntsitzen duen eredu honen aurrean mobilizatu behar gara”, adierazi zuten giza katearen amaierako ekitaldian.

Erraustegia “salgai”

Expansión hedabideak egunotan berri eman duenez, China Tianying (CNTY)-ek Urbaserren kapitalaren ehuneko ehuna salgai jarri du, akzioen gutxieneko parte hartze bat izango zuen finantza bazkide bat aurkitu ez duelako. Eroslerik aurkituko balu, 2.400 miloi euro irabaziko ditu. Lerrootara dakarkigu albistea, Zubietako erraustegiaren eraikitze eta kudeaketa lanak Ekondakin kontzesionarioari esleituak dizkiolako Foru Aldundiak. Enpresa talde horretako bat da Urbaser, %46ko parte hartzea du erraustegian. “Zubietako erraustegia enkantean jarri dute! Putre-funts batek kudeatuko du laster gipuzkoarron osasuna?”, galdetu zuen albistea jakin berritan GuraSOsek, sare sozialen bidez.

“Aldaketaldia” Usurbilen

Larreko Mahaia osatzen duten eragile sindikal, sozial eta ekologista anitzek ingurumen larrialdia salatzen “Zaldibar gogoratuz, ondo bizi eta bizitzen uzteko Aldaketaldia” iragarri dute egunotarako. Helburu horrekin denetarikoa salaketa eta aldarrikapen ekintzak antolatu dira udalerriri anitzetan ekimen zikloarekin bat egin duten beste hainbat eragileek. Beharrezkotzat jotzen dute bizitzaren aldeko “norabide-aldaketa sakona exijitu eta trantsizio ekolo-

giko eta sozialki justu baten alde urratsak emango dituen jendarte aktibatu eta saretea”. Eta horretarako “globalean pentsatu eta lokalean ekitea” ezinbestekotzat jotzen dute. Otsailaren 6an urtea beteko duen Zaldibarko zabortegiko hondamendia ere gogoan hartuko duen Aldaketaldiaren baitan bi ekintza antolatu ditu Usurbilgo Anerreka ingurumen elkar-teak. Larunbatean egingo da zikloko mobilizazio nagusia Donostian.

Hitzorduak

Urtarrilak 27, asteazkena

- 18:30 Hitzaldia Potxoenean: “Usurbilgo kutsadura-foku nagusiak”.
- Hizlaria: Felix Olaetxea.
- Antolatzailea: Anerreka Ingurumen Elkartea.

Urtarrilak 29, ostirala

- 18:30 “Lurgai” fundazioaren aurkezpena Sutegin.
- Hizlaria: Jon Hidalgo lehendakaria.
- Zehaztasunak: bertako ba-

soa berreskuratzeko eragile “Lurgai” fundazioaren aurkezpena.

- Informazio gehiago: lurgai.org
- Antolatzailea: Anerreka Ingurumen Elkartea.

Urtarrilak 30, larunbata

- 17:00 Mobilizazio nagusia Donostian; “ahal den manifestazio batu, animatu eta koloretsuena”. Gladys Enea, Bilbo plaza, Getaria kalea eta Bulebarra zeharkatuko ditu.
- Deitzailea: Larreko Mahaia.

GuraSOsek deituriko giza katea, iruditan



Osasuna, ingurumena eta justizia babestea exijitu zuten giza katean parte hartu zuten herritarrek.



Наманигу!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 13 dira guztira.




Itzala

Zein da eskiatzaile traketsaren itzal zuzena?



ELUR BOLA

Zer sartuko zenuke elur bola batean? Paisaia zuritu bat? Otsoa? Eskiatzaileak? Marraztu.



HauXe Parea

Arrain hauen


artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?

Arrotza

Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoeikin bat ez datorrena.



Mezu gordea



Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.

Two rows of food items with corresponding empty boxes for labeling:

- Row 1: [nut] [orange] [carrot] [bird] [nut] [nut] [pumpkin] [mushroom] [nut] [pear] [nut] [carrot] [pumpkin] [] [] [] [] [] []
- Row 2: [orange] [nut] [mushroom] [pumpkin] [nut] [] [] [] [] [] [] [] [] [] [] [] [] [] []

Negu gorriko SUDOKUAK

Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

NEGU
(N, E, G eta U)

	N		E
		N	
	G		
U		G	

GORRI
(G, O, RR eta I)

O			G
		RR	
	O		
I			RR

Alphabet key with corresponding food icons:

- A: nut, B: burger, C: candle, D: cupcake, E: nut
- F: eggplant, G: mushroom, H: broccoli, I: carrot, J: green bean
- K: pumpkin, L: banana, M: grapes, N: orange, O: coffee cup
- P: mushroom, R: nut, S: pear, T: carrot, U: pumpkin
- V: fried egg, W: worm, X: snail, Y: bandage, Z: bird

Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearen agur “gazi-goza”

Urte amaieran iragarri zuten lekuko aldaketa gauzatzera doaz urtarreko azken ostiral honetan, euskal presoek eskubideen alde 20:00etan Mikel Laboa plazan egingo den elkarretaratzean. Lehenbiziko aldiz Sarek deituko du hitzordua eta ez Usurbilen Nahi Ditugu bilgunek. Bere ibilbidea amaitutzat eman du, 47 urteetan lehen aldiz udalerrri honek ez baitu errepresaliaturik, azaroan Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga baldintzapean aske, “halako batean etxean bizimodu ia normala eramateko aukera eman ostean”.



Preso eta iheslarien senideak 1991n talde bezala antolatu zirenetik, elkartetik pasatako senideak dituzue argazkian.

Memoria frexkatu digu aipatu bilgunek; “arrazoi politikoak tarteko, 1968tik 43 usurbildarrek (bertan jaiotakoak edo bertan bizi direnak) eza-gutu dute espetxea. Horietako batzuk behin baino gehiagotan izan dira kartzelan. Urte gehien egin dituen Xabier Aranburu “Xomorro” izan da”, oroitarazi du Usurbilen Nahi Ditugu bilgunek. Aginagarriak 25 urte espetxean bizi izan zituen.

Usurbilek aipatu moduan ez du errepresaliatu politikorik baina Euskal Herriak bai, “218 preso eta dozenaka ihes-

USURBILN NAHI DITUGU

“Gatazka politikoaren ondorioei behin betiko konponbidea emateko lanean segituko dugu”

lari edo deportatu dauzkagu oraindik etxeratzeke”. Ondorioz lanean segitzeko beharra azpimarratzen du Usurbilen Nahi Ditugu bilgunek. “Euskal Herriko gainerakoek ere presorik eta iheslaririk gabeko herriak izateko. Ahalegin horretan, ordea, aurrerantzean Sare izango da eragile nagusia”.

Konponbidearen alde lanean segituko dute

90. hamarkadan “Senideak” aritu zen eremu honetan eragiten, Etxerat-ek hartu zion lekukoa duela 20 urte. Etxerat-eko tokiko taldea izan da urteotan Usurbilen Nahi Ditugu. “Bere jarduna, euskal preso eta errepresaliatu politikoen asistentzia eta senideon arteko sostengua eta laguntza bermatzearekin batera, bai beraien eta baita gure eskubideen urraketen berri ematea, dagozkigun eskubideen errespetua exijitzea eta bi estatuek (Espainiak eta Frantziak)

izandako politiken ondorioei aurre eginen laguntzea izan dira gure elkarrearen helburuak”.

Usurbilen aipatu helburuok bete dira, “baina zoritxarrez, oraindik orain, preso eta iheslarien auzia konpontzeke dago”. Ezinbestekotzat jotzen dute konponbidera lehenbailehen heltzea Euskal Herrian, “bizikidetzara eta bakera iristeko eta sufrikario honekin amaitzeko. Usurbilen Nahi Ditugu taldeko kideok gatazka politikoaren ondorioei behin betiko konponbidea emateko lanean segituko dugu”.

“Zuei guztiei esker, ez gara bakarrik sentitu!”

“Norbait ahazteko arriskua hartuta eta aurrez barkamena eskatuta” bidelagun izan dituztenak eskertu nahi dituzte, “zama hau eramatea askoz errazagoa egin zaigu” eta. Batetik, “Udalaren laguntza nabarmendu nahiko genuke. Izan ere, tarte batean alkate izandako batekin izandako gorabehera batzuk kenduta, oro har bere esku dagoena egin duelako bai gure eta baita gure senideen eskubideak defendatzeko eta jasan ditugun egoeren ondorioak baretzeko”.

Oso hurbil sentitu dituzte

baita “herriko talde, eragile eta elkarte asko”. Zenbaezinak zaizkie “ate joka joan garen bakoitzean beren laguntza eman diguten musikari, abeslari, dantzari, argazkilaria, soinu eta bideo teknikariak; gure pankarta, kartelak, eskuorri, aldizkari eta beste euskarriak diseinatzen, egiten, inprimatzen eta banatzen lagundu digutenak bezala. Zer esanik ez, egun seinalatuetan (Sagardo Eguna, Santixabelak, Erle Eguna, Santomasak, Gabonak...) izan gaztainak erretzen, taloak egiten, txosnak jartzen, zikiroa

erretzen, tartak egiten; kantuan gurekin kalejirak egiten, errifak saltzen (... eta erosten), herri-bazkariak eta afariak antolatzen eta osagaiak muxutruk ematen; hainbat material saltzen edo sinadura-bilketetan mahaiak jartzen aritutakoak. Manifestazio handien antolakuntzan lagundu digutenak. Bileretarako, materiala gordetzeko eta gure lanetarako bere lokaletan txoko bat utzi digutenak. Ikastolan gure seme-alabak pairatu dituzten ondorioak leuntzeko irakasleek egindako ahaleginak. Gure eskakizu-

nekin bat egin duten elkarte, alderdi, parrokia, sindikatu, emakume-, gazte-, kirol- eta kultur taldeak. Gure ekimenen berri eman duten NOAUA! eta Usurbil Eginez bloga”.

“Alboan izan ditugun herritar guztiak. Elkartasun itzela erakutsi digute urte luze hauetan elkarretaratze eta mobilizazioetan parte hartuz, ekarpen ekonomikoak eginez, bisitetako bidaietan edo beste hainbat egoera zailtan beti gertu izan ditugu. Zuei guztiei esker, ez gara bakarrik sentitu!”.



Oskar Santamaria, Euskara saileko udal zinegotzia

Euskaraz biziko bagara, ez da nahikoa euskaraz egitea. Esaldi eztabaidagarria izan liteke, baina testuingurura ekarrita hobeto uler liteke: euskara hizkuntza ofiziala izanik, euskaraz aritzeko eskubidea aitortua dugu herritarrok; aitzitik, euskaraz aritzeko eskubide hori baliatzeko espazio eta aukerarik eman ezean, nekez bizi gintezke euskaraz. Legez egindako aitortza, praktikan ere egin beharra dute, bestela esanda, eremu publiko zein pribatuak.

Hizkuntz eskubideen borroka ez da atzo goizeko kontua. Jakina da euskarari dagokion tokia egiteko azken hamarkadetan egindako lana handia izan dela. Herri ekimenak urratutako bidean administrazioak protagonismoa hartu zuen, eta bien arteko elkarlanak fruitu esanguratsuak eman ditu. Urrutira joan gabe, Usurbilgo Udala izan zen UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen sortzaileetako bat, eta, egun, harro esan dezake euskara duela lan eta zerbitzu hizkuntza.

Alabaina, zoritxarrez, ohituegi gaude, oraindik, han eta hemen urraketak ikusten: dela hizkuntza paisaian, entitatearen baten jakinarazpenean, publizitatean, aisialdian... Erdara hutsezko

Kexa bada eraginkorra



Herritarrok hizkuntz eskubideen urraketan aurrean ahalduntzeko, prestakuntza saioa egingo da Potxoenean.

OSKAR SANTAMARIA

“Pandemia egoera honetan, urraketak nabarmen areagotu dira... Zer egin horrelakoetan? Nola liteke halakorik euskarak lege-aitortza badu? Galdera horien erantzunak topatzeko saio interesgarria izango dugu otsailaren 3an, 18:00etan, Potxoenean”

edukiak sarri. Pandemia egoera honetan, gainera, urraketok nabarmen areagotu dira... Zer egin horrelakoetan? Nola liteke halakorik euskarak lege-aitortza badu?

Galdera horien erantzunak topatzeko herritarrok ahalduntzeko saio interesgarria izango dugu otsailaren 3an, 18:00etan, Potxoenea kultur etxean. Agurra Gaubeka, Hizkuntz Behatokiako zuzendaria izango da gurean, herritarrok

ditugun hizkuntz eskubideak gogorazi, eta haiek bete daitezten aldarrikatzeko ditugun tresnak ezagutarazteko. Txikitik eragiteko ahalmena izugarria da, eta horregatik uste dut saio benetan aberasgarria izango dela denontzat.

Ekimena Usurbilgo Udalaren eta Hizkuntz Behatokiaren arteko elkarlanaren emaitza da. Bien arteko hartu-emana ez da berria –2009tik laguntzen du Udalak hizkuntz eskubideen defentsan diharduen erakunde–, baina, aurten, berrindartu egin da konpromisoa. Abenduan eman genuen xehetasunen berri: formakuntza saioez gain, Behatokiak Usurbilen gertatu edo salatutako urraketan txostena helaraziko dio urte amaieran Udalari, besteak beste.

NOAUA! eta UEMA bidaide izango ditugu egitasmo honetan. Herritarrek, hortaz, lauatako edozeini helarazi ahal izango dizkiote kexak. Egiri

zor, orain arte asko izan dira kontzientzia hori erakutsi eta kexak helarazi izan dituzten usurbildarrak. Benetan txalotzekoa eta eskertzekoa da euren jarrera aktiboa. Udalak bera ere gertutik jarraitzen du gaia. Batzuetan, Udalaren beraren ardurapeko zerbitzuekin lotutakoak izan dira urraketak; beste batzuetan, entitate pribatu edo administrazio orokorraren menpeko erakundeak.

Eskubideez ari gara, eta, beraz, handira jokatu beharra dago (dugu). Txikieria dirudiena ere urraketa da, salatze modukoa. Udalean borroka hori gure egin nahi dugu, eta horregatik, gonbita egin nahi diegu herritarrei halakorik pairatuz gero geureganator daitezten (Sutegi, Potxoenea eta Urbilen postontziak jarriko ditugu idatzizko kexak bideratzeko) edo Behatokiaren kanalak (Akuilari, euskararen telefonoa) erabil ditzaten.

Nahi duenak, noski, izena eman dezake www.usurbilkultura.eus atarian, hilaren 3ko saioan parte hartzeko (lagun-kopurua mugatua da). Ziur nago interesgarria izango dela, eta aberasgarria. Usurbil udalerri euskalduna da, eta uste dut euskaldun izaten jarrai dezan kontuan hartzeko moduko gakoak mahaigaineratu litezkeela bertan.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



Irisasi BTT “Hotzak Akabatzen”, 2022ra atzeratua

Mendiko bizikleta zaleentzat egutegian seinalatua dagoen hilabete amaierako Irisasi BTT “Hotzak Akabatzen” probarik ez da izango aurten pandemia tarteko. 10. edizioa behar zuena 2022. urtera atzeratu dute. Antolatzaileekin bildu da NOUAU!.

NOUAU! Noiz erabaki zenuten 2021eko edizioa bertan behera uztea?

Proba beti iraila erdialdean prestatzen hasten gara. Oraingoan lehen bilera egin genuen erabakia denon artean hartzeko, baina argi ikusi genuen alferrik izango zela antolaketa prozesu guztia martxan jartzeara, gero proba bertan behera uzteko. Urtarrilean proba egitea ez zela posible izango ikusi eta antolatzen ez hastea erabaki genuen.

Urtebete atzeratua geratu da ezta?

2022. urteko urtarrileko azken asteburuan izango litzateke. Babesle batek deitu zigun ia uda honetan antolatuko genuen. Garbi genuen ezetz. Aldez aurretik erabakia hartua genuen.



“Aurrera egin ahal izango dela ikusten badugu, datorren udazkenean dinamika guztia martxan jarriko dugu”.

ANTOLATZAILEAK

“Iaz marka guztiak gainditu genituen.

Eskaera ikusita,

500etik 600 lagunera igo genuen parte-hartzea”

Neguko xarma berezia galduko luke probak udan ospatuta.

“Hotzak akabatzen” udan ez zen oso egokia. Kontuan izan, 2020. urtean, iaz egin zen proba gutxienetako bat ospatu zena gurea izan zen. Udaberri eta uda partean izaten diren probak bertan behera

geratu ziren.

Zer zetorren jakin gabe antolatu zenuten iazkoa, parte-hartze marka hautsita.

Marka guztiak gainditu genituen. Eskaera ikusita iaz 500etik 600 lagunera igo genuen parte-hartzea. Arrakatsua izan zen. Halere parte-hartzea mugatu behar izaten dugu, segurtasun eta antolakuntza arrazoiengatik.

Aldaketarik ez bada udazkenean hasiko zarete antolatzen 10. edizioa.

Udazkenean berriro antolatzen

hasten garenean, egoera nola dagoen aztertu beharko dugu. Aurrera egin ahal izango dela ikusten badugu, dinamika guztia martxan jarri eta antolatuko dugu.

Pandemian murgildu ginenetik “dena” gelditua dago ezta?

Taldekide batzuk kanpoko proba batzuetara joaten dira. Iaz apuntatu ginen zenbait urte honetara atzeratu dituzte. Aurreinskripzioak ordainduta zeudenez dirua itzuli edo 2021. urtean proban parte-hartu ahal izateko aukera eskaini dute.

“Negu giroak mendian ibiltzeari ukitu gogorragoa ematen dio”

NOUAU! Hutsune nabarmena nabariko da hilabete amaieran, zuen proba gabe. Zer be-zeitasun ditu?

Negua giroak mendian ibiltzeari ukitu gogorragoa ematen dio. Urte batzuetan kazkabarra, elurra, euria... egin du. Jendeak gustuko du gogortasun hori. Hasieratik Irisasi mendiko buelta urtarrileko azken igandean egitea erabaki zen eta ezpiritua hori

mantendu da. Frogak nortasun propioa duela ikusi dugu kanpoko mendiko bizikleta zaleen artean.

Erreferentziatzeko hitzordua da haiantzat.

Badakite zertara datozen eta mendia nola egongo den. Jende askok agian beste neguko probetan ez du parte hartzen baina gurea etortzen da. Antolakuntzatik saiaterazten gara

ahalik eta ondoen egiten, eta jendea beti gustura atera izan da, bai probak duen gogortasunarekin eta baita ere egiten zaien harreragatik; urtero sari txiki bat bada denentzat, sari potoloagoak zozketatzen dira, hamaiketako eskaintzen zaie... Oso gustura geratzen da jendea eta gustura etortzen dira urtero.

Jatorri ezberdina dute parte-

hartzaileek. Herrikoez gain nondik datoz zuen probaz gozatzeraz?

Madril edota Santanderretik etorri izan dira. Probak herria aberastan du; parte-hartzaile hainbat landetxeetan gertzen dira lotan. Probak sortzen duen giroa ere gustukoa izaten dute. Kanpoko probetara goazenean, gure maillota ikusten dutenean oso ezaguna da.

“Probarako berreskuratzen ditugu bideak”

NOAUA! Mendirako joera geroz eta handiagoa da lasterkarien artean; mendiko bizikleta zaletuekin gauza bera gertatzen ari da? Zaletuak ugartzen doaz?

Bai, iaz parte-hartzea mugatu egin behar izan genuen. Herrian bertan gazteak ez ziren ikusten mendiko bizikletarekin eta orain asko ikusten dira. Belaunaldi errelebo bat bada.

Zaletasun hau sustatzeko sortu zenuten proba?

Larunbat eta igandeetan koadrilan ateratzen ginen mendira. Mendiaz gozatzeaz gain, talde giroa sortu zen. Kide batzuen inizatibaz proba antolatzen hasteko ideia sortu zen. Sariak ematen zituzten laguntzaileak bilatu ziren. Ez digu aparteko ahal-egin bat suposatu antolaketa lanak. Koadrila giroan aritu



“Urtero, proba antolatu aurretik, pistak garbitzen aritzen ginen parte-hartzaileei bide berriak eskaintzeko”.

ANTOLATZAILEAK

“Herrian bertan gazteak ez ziren ikusten mendiko bizikletarekin eta orain asko ikusten dira. Belaunaldi errelebo bat bada”

gara, modu ludiko eta atseginenean antolatzen.

Mendi bideetan ospatzen da proba honen zati handi bat. Udazken honetan sare sozialetan guneotan lanean ikusi zaituztegu. Txukuntze lanean?

Urtero proba antolatu aurretik pistak garbitzen aritzen ginen parte-hartzaileei pizgarri moduan bide berriak eskaintzeko, ez betiko ibilbidea. Erdi utzita, ezkutuan zeuden pista zaha-

rrak berreskuratu izan ditugu. Oraingoan proba antolatuko ez genuela ikusi arren, berdin jokatzea otu zitzaigun, baina herriko gazte talde polita aurreratu zaigu. Mendira atera ginen asteburu batean haiek pistak garbitzen aurkitu genituen. Azkenean gu bi taldeetan aritu ginen eta haiek beste bizpahiru taldeetan. Probarako berreskuratzen ditugu bideak, baina ez gure aldetik, aurrez baimenak eskatuta.

Egoki zaintzen dira pista hauek? Zaintza handiagoa behar lukete?

Azken urteetan, zuhaitzak eta pinuak ateratzen ari dira. Duela bi hilabete ikusi dugu bide orokorrak garbitzen ari direla. Jendea leku berdinetatik ibiltzen bada, ez dago garbitu beharrik, belarra gutxiago hazten da.

“Tabernak itxiak zeudenean, izugarria zen zenbat jende zegoen mendian”

NOAUA! Pandemia hilabeteotan ohi baino jende gehiago dabil mendian. Zer errealitatearekin topo egin duzue?

Herritik ateratzeko debekua zegoenean, batek baino gehiagok aipatu zuen, mendiak tabernak irekitzea behar zuela. Izugarria zen tabernak itxiak zeudenean zenbat jende zegoen mendian; bizikleta gehiago, jendea paseoa haurrekin. Orain tabernak irekiak daudela jende gutxiago dabil, betikoak gabiltza.

Elkarbizitza erraza izan al da?

Hemen aipatu beharra dago, mendira bidean Igartzazabal baserria dagoela. Ardiak dituzte. Entzun dugu zenbaitek



“Gurea ez da talde itxi bat, antolaketa lanetan parte hartu edo mendira gurekin atera nahi duenak atea irekia du”.

ANTOLATZAILEAK

“Goizegi da ezer aurreikusteko, baina ilusioa nabari da taldean. Zerbait berezia egingo dugu 10. edizioan”

beherakoan abiadura ez dutela zeharo kontrolatzen, eta abiadura murriztu beharko lukete jaisterakoan. Azken aldian moto asko hasi dira igotzen. Eskubidea dute igotzeko baldin eta Puelara heltzen den pista nagusitik ateratzen ez badira. Hortik gora igotzea de-

bekatua dago baina igotzen ari dira.

Irudika dezakezue nolakoa izango den datorren 10. edizioa? Berezia zalantzarik gabe.

Goizegi da ezer aurreikusteko, baina ilusioa nabari da taldean. Zerbait berezia egingo dugula ziur baietz. Bide batez, gurea ez da talde itxi bat, antolaketa lanetan parte hartu edo mendira gurekin atera nahi duenak atea irekia du. Urteotan osatzen joan da taldea.

Taldearekin hartuemanetan jartzeko irisasibt@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Kalezarko hirigintza proiektuak etenik gabe aurrerabidean

Goranzko bidean, geroz eta garaiera handiagoa dute Kalezarren altxatzen ari diren eraikin berriek. Itxuraldatze betean segitzen du zonaldeak. Batetik, adinekoen auzunea dugu, garai bateko mojen konbentuaren lur eremuan. N-634 errepidetik, Ugaldea industrialdetik nahiz Kalezartik bertatik ikusteko modukoa da lanen abiada. Handik hurbil, Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzak. Eraikitze lanak ere aurrerantz doaz.



Ugaldea industrialdetik nahiz Kalezartik bertatik begiratuta, ikusteko modukoa da lanen abiada.

TXIRIKORDA

Ugartondoko etxebizitzaren eremuan kokatuko da etorkizunean Txirikorda

Gogoan izan, bi hirigintza lan hauen bueltan, ibilgailuen joan etorria egokitu beharko dela asteotan.

Txirikorda, diruz lagundua

Ugartondoko etxebizitzaren eremuan kokatuko da etorkizunean Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren udal egitasmoa. “Exekuzio proiektua eginda, otsailan hasiko da lanak esleitzeko

prozesua, 2021ean eraikitzen hasi, eta, hala, 2022 amaierarako martxan egotea nahi du udal-gobernuak”, Udalak azaroan berri eman zuenez.

Eusko Jaurlaritzaren 640.000 euroko diru-laguntza jasoko du Usurbilgo Udalak sustaturiko Txirikorda proiekturako. Ugartondoko etxebizitza berrien eremuan kokatuko den

udal ekipamenduak “bultzada nabarmena jasoko du” Udalak ohartarazi duenez. 2.375.000 euroan baloratua du proiektua, eta haietatik 2.063.000 euro “jada lortuak eta lotuak ditu”.

Pelaioeneko prozesua iruditan

Birgaitua dagoen Kalezarko eraikinari barrutik forma emateko bi parte hartze prozesu abian ditu Usurbilgo Udalak. Bertan egoitza izango dute etorkizunean Emakumeen Etxeak eta kalezartarren auzo

ekipamenduak. Orain arteko saioak iruditan bildu ditu Udalak usurbil.eus atarian, “Multimedia Txokoan”. Atari berezitu bat ere bada webgune berean. Parte hartze saioen egutegia edota orain arteko saioen aktak ikusgai dituzue. Gogoan izan, asteotarako parte hartze saio gehiago iragarri ditu Udalak:

Urtarrilak 28, osteguna

■ 18:00 Artzabalen: Emakumeen Etxeari lotutako 4. gogoeta gunea.

■ Gaia: “espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa eredua eta funtzionamendua”.

Otsailak 4, osteguna

■ 18:00 Haur Eskolan: kalezartarren auzo ekipamenduari lotutako 3. gogoeta gunea.

■ Gaia: “espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa eredua eta funtzionamendua”.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Otsailaren 7an, zinea Sutegin: “Asto erregea”

Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin batera antolaturiko haurrentzako euskarazko zine zikloaren hurrengo proiektzioa, otsailaren 7an izango da, 17:00etan Sutegin. “Asto erregea” filma proiektatuko dute. Sarrera kopuru mugatua izango da eskuragarri, 3 eurotan aurrez usurbilkultura.eus atarian. Oihaneko buru Lehoi Erregea erretiratzekotan da eta ondorengo hautatzeko hauteskundeak deitzea erabaki dute.

Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

Itzala
Zein da eskiatzailer irudiazaren itzai zuzena?

Hamahiru!
Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.

Elur-bola
Zer sartuko zenake elur-bala baten? Poesia zuriu bat? Otsa? Eskiatzailerak? Warratza.

Hauke Parea
Arrain hauetan arteetik bi berdin-berdinak dituzu (hina, agian bat bestea baino handiagoa, baino gainartzean berdin-berdinak). Zeintzuk dira?

Neju gorriko SUDOKUAK

Otsatu lauki zuriak sudoko bakoitzaren deigarriekin hizkiak konfuzan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak baliu ageritu bakar-duela zutabe, lerro eta arau bakoitzeko.

	N	E		
E	U			G
N	G	E	U	
U	E		G	N

GORRI
(G, O, RR eta I)

O	R	I	O
G	I		G
RR	O	G	I
I	G	O	RR

Mezu gordea

Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esatera zahar bat osatuko duzu.

A	B	C	D	E			
F	G	H	I	J			
K	L	M	N	O			
A	N	T	Z	A	R	A	K
P	A	S	A	T	U		
N	E	G	U	A			
E	T	O	R	R	I		
V	W	X	Y	Z			

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta erroldarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. 675886442 (Fernando).

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar

dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informee-kin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingelesezko irakaslea naiz baina

bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrek emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrek emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztailea eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest .664192760 / 722483994.

Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nintuzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearen azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat ditu. Prezio negoziagarria. 696763868/699723314

Perikito bat galdu da Puntapax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maidier)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Heriotzak

Pepi Martija Lazkano

Urtarrilaren 19an hil zen, 80 urterekin

**Heriotzak**

Rita Penalonga Luaces

Urtarrilaren 24an hil zen, 77 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 31 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 07 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda

urtarrila

29 ostirala

- "Aldaketaldia": Lurgaia fundazioaren aurkezpena. 18:30ean Sutegin. Antolatzailea: Anerreka Ingurumen Elkarte.
- Presoen eskubideen aldeko elkarretarata. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

30 larunbata

- Gu ere bai! ekimenaren urteko batzarra Sutegin. 10:45ean ofizialtasunaren aldeko argazkia. 11:00etan batzarra Sutegin.
- "Aldaketaldia": mobilizazio nagusia. 17:00etan Donostian. Ibilbidea: Gladys Enea, Bilbo plaza, Getaria kalea eta Bulebarra.

31 igandea

Euskal selekzioen ofizialtasunaren aldeko batzarra

Euskal selekzioaren ofizialtasunaren alde lanean diharduen Gu Ere Bai dinamikak urteko batzar nazionala Usurbilen egingo du larunbat honetan, urtarrilaren 30ean. Segidan dituzuen hitzorduak deitu dituzte.

Dagoeneko 1.250 sinatzaile ditu euskal selekzio ofizialaren alde guerebai. eus atarian esekia duten manifestuaren alde biltzen ari diren atxikimendu kanpainak. "Nazioarteko aitortzat bat" eskatzen dute, "euskal selekzioek nazioartean ofizialki parte hartzea aldarrikatzen dugu".



Larunbat honetan batuko dira Sutegin.

Urtarrilak 30, larunbata

- 10:30 Kirolariei harrera plazan.
- 10:45 Ofizialtasunaren aldeko argazkia.
- 11:00 Batzarra Sutegin.

Informazio gehiago: guerebai.eus

Ikastaroak Usurbilgo KzGunean

Whatsapp. bat-bateko mezularitza zure Smartphonean.

- Urtarrilak 28 eta 29.
- Orduetgia: 9:00-11:00.
- Euskaraz.

Ikastaro gehiago ere egingo dira datozen egunetan. Informazio gehiago Usurbilgo KzGunean edota bertara telefonoz deituta, 943 02 36 84.

Emakumeen Etxearen inguruko bilera

Kalezarko Pelaiotena eraikinaren inguruko parte-hartze prozesuak aurrera darrai. Emakumeen Etxeari lotutako bilera egingo da ostegun honetan.

Urtarrilak 28, osteguna

- 18:00 Artzabalen.
- Gaia: "Espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaiotenearen kudeaketa eredu eta funtzionamendua".

Datozenak

Kalezartarren auzo ekipamendu berriari lotutako bilera

Otsailak 4, osteguna

- 18:00 Haur Eskolan: kalezartarren auzo ekipamenduari lotutako 3. goeta gunea.
- Gaia: "espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaiotenearen kudeaketa eredu eta funtzionamendua".
- Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Hizkuntza eskubideen ahalduntzerako saioa

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta Usurbilgo Udalak berriki sinaturiko lankidetzaren hitzarmenaren testuinguruan, herritarrek dagozkien hizkuntza-eskubideen arloan ahalduntzeko prestakuntza saioa deitu du Usurbilgo Udalak.

Otsailaren 3an, asteazkena

- 18:00etan Potxoenean.
- Izen-ematea: Behatokiak bideratuko duen hitzordurako izena doan eman daiteke, urtarrilaren 29a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian.
- Deitzaileak: Hizkuntza Eskubideen Behatokia eta Usurbilgo Udala.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxurak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

noaua.eus goranzko joeran



Erabiltzaileen kopurua %22'84 igo da

<u>2019</u>	<u>2020</u>
37.331	45.859

Ikusitako orrialdeen kopurua %27'65 igo da

<u>2019</u>	<u>2020</u>
230.310	293.996

Bisitek gora egin dute nabarmen: %43'06

<u>2019</u>	<u>2020</u>
102.227	146.250



noaua

noaua.eus, usurbildarren zerbitzura

Herri Batzarra

KONGRESUAREN
AURKEZPENA

urtarrilak 30
10:30 · Potxoenean

IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA:

labur.eus/M89ny

